

ARANGIOKO HAITZETAN



Anboto eta Aramaio artean. Arangio deitzen zaien toki bat dago, haitzez beteta. Arangioko haitz horietan, mutil bat artzain ibiltzen zen bere ardiekin larreetan gora, larreetan behera.

Noizean behin inguruko lamiak irtetzen zitzaizkion. Guztiek dantzan eta aidean ibiltzen zuten artzain gaztea. Eta bera pozik, noski! Hain ederrak ziren lamia horiek...

Horietako lamia batek egunero laguntzen zion etxeraino eta behin elkarrekin ezkontzeko asmoa hartu zuten. Lamiak, oroigarri gisa, eazkerreko eskuaren behatz txikian eraztun bat ipini zion. Oso pozik zeuden biak.

Mutila etxera joan eta berri ona eman zion amari:

-Ama, nik ere oraingo honetan ezkonduegin behar dut.

-Norekin ba, seme?-galdetu zuen amak guztia harrituta.

-Neska eder eta polit batekin. Basora etortzen zait beti.

-Gehiago gabe ezkondue?

-Bai, ama.

Ama ez zegoen oso ziur ezkontza horrekin eta badaezpada ere, abadearengana eraman zuen mutila. Dena kontatu zioten eta abadeak horrela esan zion mutilari:



ENTZUMENA ETA MINTZAIRA GELA

-Begira iezaekiozu hankak neska horri, ea nolakoak dauzkan.

Mutila, hurrengo egunean, beti bezala abiatu zen Arangioko haitzetarantz bere ardiekin. Lamia ere etorri zitzaion ohi bezala eta egun osoa elkarrekin eman zuten. Iluntzerako etxerantz abiatu zen baina bidean, abadearen etxean gelditu zen lamiaren hanken berri ematera:

-Abade jauna, neskak ahate hankak dauzka.

-Emaiozu eraztuna orduan, lamia bat da eta.

Hurrengo egunean joan zen berriaz mutila Arangiora eta lamia agertu zitzaionean eraztuna eman nahi izan zion baina behatzetik atera ezinik zebilen. Tira eta tira...baina alferrik zen. Ezin zuen eraztuna atera.



Azkenean, behatz txikia labana batekin moztu eta zapla! Lamiari bota zion eraztun eta guzti. Etxera korrika zetorrela, atzetik jarraitu omen zion lamiak. Ohean sartu zen mutila eta ez zen gehiago jaiki.

ORAIN, JARRAIPENA EMAN ISTORIO HONI: ZER GERTATUKO DA??
(10 LERRO GUTXIENEZ)

